

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Maiatzean 1.259 langabe gutxiago izan dira Nafarroan, eta orain 53.185 pertsona daude lanik gabe

Aurreko hilabetearekin alderatuz, langabezia % 2,31 jaitsi da

Martes, 04 de junio de 2013

Nafarroako Enplegu Zerbitzuen (NEZ) Enplegu Agentzietan 53.185 langabe zeuden erregistratuta maiatzaren amaieran, hau da, % 2,31 jaitsi da (1.259 pertsona) iragan hilabetearekin alderatuz; orduan, 54.444 pertsona ziren.

Kontratazioari dagokionez, NEZan erregistratuta eta lantokia Nafarroan duten kontratukopurua 20.485ekoa izan da. Hau da, apirilarekin alderatuz, 81 kontratu gehiago.

NEZen zuzendari-gerente Ma^a Isabel García Malok langabeziak hirugarren hilabetez jarraian izandako jaitziera baikor hartu du, nahiz eta oraindik ezin den esan enpleguaren hazkundera finkatu dela. Azpimarratu du, gainera, erregistratutako kontratuen kopuruak gora egiten jarraitzen duela, kontratazioa mugagabe izandako igoera, % 14,11, nabarmenduz.

Enplegu-agentzien arabera, agentzia guztietan jaitsi da langabezia: Doneztebe (-% 4,49), Tuteran (-% 3,43), Lodosa (-% 3,00), Lizarra (-% 2,90), Iruña-Yamaguchi (-% 2,83), Tafalla (-% 2,61), Agoitz (-% 1,95), Iruña-Ensantxe (-% 1,90), Altsasu (-% 1,18) eta Iruña-Arrotxapean (-% 1,01).

Sektore ekonomikoen arabera, honako arlo hauetan langabeziak izandako beherakada azpimarratu behar da: elikaduraren industria (kontserbagintza) (-138 pertsona); enpleguari lotutako jarduerak (-134), nekazaritza (-130), ostalaritza (-129), eraikuntza (-89) eta txikizkako merkataritza (-85 pertsona). Etxeko zerbitzuaren sektorean 95 pertsona gehiago dago lanik gabe.



Langilea industria batean

Sexuaren arabera, 27.125 emakumezko daude lanik gabe, % 1,57 jaitsi da, eta 26.060 emakumezko, % 3,07 jaitsi da, aurreko hilabetearekin alderatuz; horrek esan nahi du langabezia gehiago jaitsi dela gizonezkoen artean.

Adin-taldearen arabera, 25 urtetik beherako langabeak % 1,37 jaitsi da (5.383 dira orain); 25 urtetik gorakoaren artean dagoen langabezia, berriz, % 4,90 jaitsi da (47.802 dira orain).

Kontratazioari dagokionez, 2013ko maiatzean NEZen 20.485 kontratu erregistratu dira, hau da, 81 kontratu gehiago aurreko hilabetearekin alderatuz.

Erregistratutako 20.485 kontratuetatik, 1.116 mugagabeak izan ziren, erregistratutako kontratu guztien % 5,45.